

► Zaldibarko Trikitixari eta Maltzetari omenaldi handia eskainiko zaie; EITBk antolatutako, udal kiroldegian

► Zazpi trikitixa bikotek, soinu-jotzaileek eta dantzariak hartuko dute parte 17.30ean hasiko den jaialdian



Joxe Mari Iriondo. Zaldibarko Trikitixak soinu-jotzaileak eta dantzariak hartuko dute parte 17.30ean hasiko den jaialdian

Soinu txiki eta handiaren ezkontza bihar Azpeitian

Egun luze askoak eginak dira soinuarekin. Hiru eta lau egunetako jardunak ere bai. Tarteka astebeteko aktuzioak izan zituzten sasolko zirenean, baina be-

ren bizitzan izan duten asterik luzeana beharbada aste hau izan dute Joxe Mari Iriondo *Zaldibarko Trikitixak* eta Juanito Garate *Maltzetak*. Bihar arratsaldean omenaldia egingo diete bieti Azpeitian eta elkarriket-

taz elkarriketa ibili dira aste osoan. Trikitilari gazte-agoek beteko dute jaialdiko egitaraua, baina unerik hunkigarrienak bukaeran izango dira protagonismoa omenduek hartzen dutenean.

Zaldibarko Trikitixak, Joxe Mari Iriondok, umea zela ezagutu zuen Juanito Garate *Maltzeta*. Zazpi urteren aldean dute. «Nik hamabost urte nituela Aizpurutxoko erromeriara joaten nintzen kuadrilarekin Urretxutik eta han ikusi nuen Maltzeta lehen aldiz soinuarekin. Ni jotzen hasi berria nintzen orduan. Gerora, ni Zaldibarrera etorrita gero, hemen oso trikitixa giro urria zegoen eta ikaste aldera bisita batzuk egin nizkion Azkoitira hiru edo lau pieza ikasteko asmotan, nik hemen jotzen bainuen», kontatu du.

Igandean, berriro elkarrekin izango dira Azpeitian, baina ez du jo beharrik izango. «Nik ilusio pixka bat banuen, baina bestela ere nahikoa endredu izango genuela eta soinurik gabe joateko gomendatu zigun Joxe Mari Iriondok», esan du. Bestela ere izango da norik jorik. Edurne Iturbe eta Oihana Irastorza, Patxi Aiorga eta Josu Zabalo, Aitor Letamendia eta Arkaitz Lasá, Imuntzo eta Beloki, Roberto Etxebarria eta Kepa Arizabalaga, Mamen Maltzeta eta bere lagunak, Dani Lara eta Imanol Urkizu agertzen dira egitarauko ohorezko lekuan. Aitor Lasá izango da soinu handiarekin, Ki-metz Larrañaga eta Eneritz Epelde, Asier Ena eta Maite Lazkano, Esther Kortza eta Aitor Zamalloa izango dira dantzan; Jose Mari Orbeongo *Barrenetxe* eta lagunak izango dira tangoa eta pasadobleak jotzen eta Edur-

ne Iturbe eta Donato Goienetxe soinu eta marimba jotzen.

Azpeitian egingo den jaialdiko protagonistak, dena den, Joxe Mari Iriondo eta Juanito Garate izango dira. Joxe Mari Bergarako San Lorenzo auzoan jaio zen 1931n. Haurra zela Oñatiko familia batera eraman zuten eta, aita berriro ezkondu zelarik ekarri zuten Bergarara; gerra hasia zela Urretxura joan ziren bizitzera. Hamabi urte zituela, aitak erregalatu zion soinu txikia eta maleta bizkarrean hartu eta Dulantziko okin batengana joan zen morroi lanbide bat ikasi edo jate aldera lan egitera, baina handik urtebetera Urretxuko tailer batean hasi zen lanean.

Ez du inoiz maisurik izan,

maisurik jotzen askotan ikusi badiu ere, Sakabi, Elgeta (berak Intxuzabal deitzen dio beti), Ar-be edo Auntxa. «Ezingo nuke esan debuta noiz egin nuen. Badakit 13 urterekin Elosun eztegu batzuetan jo nuela. Ez nekien se-guru zein urtetan izen zen hori, eta behin kalean ikusi eta galde-tu egin genien. 45ean izan zen, nik 13 urte nituela», kontatu du.

Kamiol gainean Unanuarra

Hamabost urte zituela, saxofoia eta jazz-banda (bateria) lagun zituela, San Donato aspian dagoen Unanuaraino joan zen hanga festetan jotzera eta han egin zioten Andra Maritan Torronon jotzeko kontratua. Ordurako soinu handiarekin zebilen eta hala segitu

du geroztik. Herri horietako gazteak Orbeogorenean omen zebiltzan lanean eta geroztik tarteka joan izan da Joxe Mari herri horietara. Trenean Altsasura joan eta han Iruñeko tren hartu, Etxarrin jaitsi eta egurretan ibiltzen zen kamiol batean joaten ginen, Donostian zerbitzatzen ari-tzen ziren neska kuadrilak eta gu, haizea hartuz herriko festetara, bi edo hiru eguneko lana egitera», gogorarazi du. Koformidatean orain baino gehiago kobratzen omen zuten orduko soinu-jotzaileek. «eguneko hamabost ogerleko eta gastuak, eta azken egunean, mutilen egunean, propinaka ematen zizkiguten».

Joxe Mari Iriondoren bizitza ez da horrela lerro gutxitan kon-

tatzeko modukoa. Urretxuko Madayan hasi zen lanean 14 urterekin eta Zaldibarko Lanber eskopeta fabrikari 33 urte enkar-gatu gisa lan egin ondoren jubila-tu zen. Bitarte horretan soinu handiarekin ibili da eztegu ez-tegu eta erromeriaz erromeria, nahiz eta enkargatu gisa lanean hasi eta hamaika urte jo gabe egin zituen.

Bi disko

Zaldibarko Trikitixak bi disko ditu Columbia irtean eginak. 1960an Arrate irtean zinta bat grabatu zuen Benito Osa pande-ro-jotzaileak lagun zuela eta sekula-propaganda egin omen zien Don Pedrok. Egunean bost adiz-gutxienez-jartzen omen zuden. «Trikitixa de Zaldibar» disko bi-koitzean, besteak beste, «Kalean nago kalean», «Mi morena», «Vuelta de Santa Marina», «Ama zeuriak esan di!» «Oraingo gaz-tiak», «Eres chiquita y bonita» eta «Arrateko piñak» piezak aurki daitezke, oraindik adineko jende-aren memoriaz itzaturik dauden doinuak. Trikitixa txapelketako epaimahaiko izan da urte askoan eta Zaldibarko Gazte Txapelketaren bultzagile. Hori guztia gutxi balitz, sei bat pieza badiu bere-ak, esaten duenez, soiftoarekin moldatzen baita. «Elgetara oi-nez», «Amatiño», «Olazar», «Akorra», «Lastur», Gehienak nahitaezkoak ziren Zaldibarko txapelketan eta honek porrot egin zuelarik. «Goibel» izeneko fan-dangoa idatzi zuen 1992an.

Alaitz eta Mainerren aitzindari

JA | ZALDIBAR

Garai hartan Colette idazle frantsesak bere senarraren izenarekin argitaratzen zituen bere nobelak. Emakume bertsolariak ere bazi-ren gerra aurretik, bai-na ez zuten sekula jen-daurrean kantatzen. Gizarteak ezarritako baldintza horien men-deko izan zen Joxe Mari Iriondo ama ere. Maria Mendizabal

Bergarako Amatiño baserriko alaba zen eta soinu txikia oso ondo jotzen omen zuen, anaiak panderoarekin lagunduta. «Amatiño baserria Bergarako San Juan Ereka auzoan dago. Osaba, Kristi-tibal Mendizabal, trikitilari zen eta hark esanda dakit amak ere jotzen zuela. Beharba-da lau pieza joko zi-tuen, baina orduko maila nolakoa zen

eduki behar da kon-tuan. Gizezkoek jo-tzea gaizki ikusita ba-zegoen, emakume batek soinu txikia jo-tzea ezinezkoa zen. Osaba ere, bere ente-guak egiteko, ezkutu-antzean ibiltzen omen zen, aitak hori denbora-galtzea zela auzpiga-rtzen ziolako. Arabara soinuarekin jotzera joan eta bueltan bost ogerleko-ekin itzuli zenean ba-karrik onartu omen

zuen soinuak ere balio zuela zerbitutarako eta orduan hasi omen zen entseguak agerian egiten», esan du illo-bak. Aita ere, Mateo Iriondo, moldatzen omen zen soinu txikia-rekin. Lasturko Arane-ta baserriatik morroi jo-an zen Amatiñora eta han ezagutu zuen Ma-ria. Urretxura ezkondu ziren eta lehen haurra izatean hil zen Maria.